

# TERESATXO DEUNA

*Gurasuak eta umiak.*—Berez maite doguzanak dira umetxoak. Eta maitasun au zerdenak ala itxusiak, azkaŕak ala ergelak direalako ezta sartzen gure biotz baŕenetan, euren eŕuge ta tolesbakotasunagaitik baño. «Umeak maite eztabezanen bat ba-lego, artez esan geinke, oŕek bere ama be eztauala maite», dirausku Selgas'ek. Gexo-aldian eurak doguz osakairik azkargaŕienak, gotil̄un aurkitzen gareanean eurak dakarskuen pozak baŕua ez-titan izten dauskue.

Josu'k biotzez maite ebazan umiak. «Betoz neugana—iñoan—aurtxoak, eurena ta euren antzekoena da zorioneko jaureŕia ta. Gero besartean samurkiro estutzen ebazan». Elexa Ama Deunak be gizaldi gustietan zaindu ta zaintzen ditu ama bigun antzera lili gaste iŕibaŕetsu oneik.

Gaur egunean, ostera, gaztaroko lili bikain onein aurka erason eta ekatx zakaŕak jagi dira; Elexearen arerio griña gaiztoz okituak aurtxoen biotz eŕu bako ta garbiak edenez zitaldu nayez eten bako ekiñean lan dagie; bizitz-umoa artzen daben loragu jatoŕetatik indaŕez atera gura dabez.

Sendia da gizartearen oñaŕi edo ondopea, ta etsayak sendia ondatu gura dabe. Ta au zelan? Umetxoak gurasoen eskupetik kendu ta abereai langoxe azierea emonda. Azkezale ta abere antzeko asko aspaldion onetan dabilz.

Beiñik bein gurasoen etxietan baño aziera obea umetxooi dubarik emoten yaken lekaime-lekaidien ikastetxeak giltzez iztea erabagi, eŕi-irakastoletatik Kistar-Ikasbidea ta gurutzea ayenatu ta dakiguzan beste mil̄a nabarmenkeri egin dabez.

Rousseau ta beste amazortzi emeretzigaŕen eunkiko sasi-jakitunak irakatsi ebena bete-erazo gura dabe. Umeai ikastoletan ez ei-yakie Jaungoikorik, geroko bizitzarik eta uskurtz edo erlejiño-gauzarik aitatu be egin bear; euren gogo gasteak amabi edo amazortzi urterarte azkatasun osoan itxi bear ei dira. Baña azkatasun oŕek zer ete dakartse umeai? Kalte esan eziñak. Ma-

txinada ostean *Jaungo'ko bakoak* deritxen ikastolak jaŕi ziran Prantzi'n eta euretan ezta uskurtz-gauzarik erakusten. Gizakeri ta ekandu txar gustiak bai oŕaitiño, ta euŕez erakutsi be; umetxoen baŕuak lizunkeriz ezainduten dabez. Ta ondorenak? Ondorenak negargaŕiak! Amar-amabi urteko neska-mutikoak griña dongaz gañezka, bizi izateko gogo ta aldazte barik egunero dakuskuz. Ta arerio oŕein asmo ta elburu bakaŕa auxe da; onetakoxe kendu edo ostu gura dautse eurek señak azteko dauken eskubidea.

Baña dakuskun nori dagokiona dan eskubide ori.

Senar emazteak Jaunak berak alkartzen dauz, eta alkartze edo ezkontzeak elburu bi ditu: bizitza onetako senar-emaztien zoriona ta umien azikaspena, ta au gorputz aldekoa ta gogo aldekoa da, gizonak gorputza ta gogoa dauz eta. Gurasoak eratu bear dautse umeai euren soin eta buru-biotzak bear dabena. Toma



Deunak, semeak gurasoen atalak direala diñosku; beraz euren gorputzak letxe zaindu bear dabez. Señak apur apurka egiten dira euren men eta sentzunen jaube ta jayo baŕiak direan arte beintzat norbaiten laguntasun eske dagoz ta ardura maratzak beaŕezkuak ditue; gaztaroan, baŕiz, zuzentzaīe onak, eta arazo au Lateŕiari barik gurasoai zuzen yagokena da.

Ta zelako azikaspena emon bear ete yake umeai? Askok emon oi dautsen langoa ez beintzat; gorputz-bizitza emon ezkero euren eginbeaŕak amaitu dabezalakoan dagozanak ba-dira-ta.

Azikaspena iru muetakoa da: gorputz aldekoa, adimen aldekoa ta onbide aldekoa. Oŕela, ba, gurasoak gorputz aldeko beaŕizanetan soīik eztabez lagundu bear euren señak, Jaunak adimendun eta aukeramendun egin dauazan ezkero ta gaztaroan men oneik nora artu eztakiela geldi dagozan ezkero, urtiekaz kaskarin, txaldan ta gaizto biuŕiak izango ezpa-dira, landu ta bide onetik zuzendu beaŕa dabe.

Gizona, berezko gařamurak bultzauta, onera baño eřeza ta sařiago makurtzen da txařera ta gaztetan bertan bera laga ezkero betiko zoritxařa lekarkion ondamendira artez doa. Ori dala-ta, umetatik ezi ta oneratu beařa dau, txikitatik oker azten dan landaria nekez zuzentzeñ da-ta. «Umetan ikasten danak zartuta be iraungo dabela» diño Goteunak. Gauzen izatasuna edo egia ezagutzeko Egiľeak emoniko umien adimen gasteak irakatzi onez janaritu bear dira ba euren aurtzaroko egunetatik: Jaungoikoagaz eta gurasoakaz lotsa andikoak izaten irakatsi bear yake, gizonak jakin eta egin bear dabezan beste zer gustikaz batera, etxean ezin bada irakastoletara bidalita.

Eta oneik, bidezko gauzarik ezta, zantarkeri gustiak irakasten diran *Jaungoiko bakoak* ba-dira? Euren auřak azteko egokien deritxoen irakasliak, ikastolak eta idaztiak aututeko eskubidea izatezko legeak damotse gurasoai. Gaurko azkezale ta bardinzaleok, bařiz, Lateřiak dabela diñoe eskubidea berak nai dabezan irakasleak eta idaztiak ikastetxietan ipinteko, ta diñoena egin daroe; baña Lateřiak ořela lapuřeta bat geyago baño eztagi. Lateřiak arik eta gurasoak euren biarkunak albait ondoen bete dayezan lagundu, ekandu dongak zigortu ta uskurtzaren kaltezko irakatsiak galerazo biar ditu; baño geyago ezer bez, gañerakoa gurasoai yagokena da-ta.

Ořaitiño oingoan indařez sartu dabez *Jaungoiko bako* ikastola ořeik. Auřerantzean ezta euretan uskurtz-gauzarik eta Jaungoiko-izenik aitatu be egingo. Kistar-Ikasbiderik ezta irakatsiko. Ta Kistar-Ikasbide bako gizonak eztau uskurtz zuzenik eta uskurtz zuzen barik eztago kistar-bizitzarik eta au barik gizarte onik bez, naspil iľuna baño.

Eta zer egin? Oľotu ez beintzat, sekulako adoretsuen agertu ta biar egin baño. Eři-ikastetxetan Kistar-Ikasbiderik irakatsi gura ezpa dabe, etxean gurasoen alboan irakatsi ta Elexa Amak ipiñita daukozan kistar-ikastoletara bialdu umetxoak; eleiz gizonak pozik janarituko dabez Jainko-ikastez euren buru-biotz gaste garbiak eta. Ořa or gaur eta beti egin bear dana.

Teresatxoren aita-amak artu zeinkiez eredutzat, guraso euzkotařak, arazo danetan, baña batez be ume kistar-arteari dagokiozan arazoetan. Arduratsu ibiľi ziran areik alabatxoai aziera ona emoten. Gazte-gaztetatik bialdu ebezan Abans'ko Ikastetxera, ta Terese tipiak txikitatik ikasi ebazan deuntasun mendirako zidořak.

SANTI, K. O.